

Gorka Urbizu


MUSIKARIA

Arbola eta fruitua

Gironatik gertu gertatu zen. Aspal-diko urteetan gure taldearen bigarren aberritzat dugu Katalunia, hain dira abegikor Euskal Herriarekin zerikusia duen edozerekiko.

Euskal rocka ez da salbuespena. Orain, gauzak zer diren, bertako pop musika modan ei dago, non eta Espainian, Manel efektuari esker. Gauza harrigarria, ez baitira gutxi Telemadrid, Antena 3 eta eskubirago koka genitzakeen hedabideetan katalanen irudia zikintzeko ahaleginak, hasi Barça ahalguztidunetik eta buka katalan hizkuntzaren defentsa-zabalkuntzak zenbait unionistei eragiten dien amorru itsuarekin. Litekeena da hau ere halako konpentsazio moduko bat izatea. Alegia: prentsa ofizialetik egurra besterik ez dizuegu emango, baina, ordainetan-edo, zuen musika ontzat hartuko dugu gure aldizkari *cool*enatan. Euskaldunoi askotan tokatu izan zaigu apurrak jasotze hori, literaturan adibidez, eta zer esanik ez politikan: Sortu ez, Bildu bai. “*Compensación a la española*”.

Ez dakit sarrera teoriko hau zertara datorren, nik Gironan gertatu zitzaidan zerbait kontatu nahi nuen. Salten kontzertua eman eta jendearekin tertulia goxoan geunden taldekideak. Halako batean neska bat hurbildu zitzaidan. Ezpain ertzetan listu kondarrak eta beginini handituak... “Erne!” pentsatu



DANI BLANCO



Hara, orduan ez zara ezta euskalduna ere!

(*¡Entonces ni siquiera eres vasco!*)



nuen: honek behar baino gehiago hitz egiteko beharra dauka. Jo eta asmatu.

Euskaraz transkribatuko dut elkarrizketa:

– Eiii, zuk Berri Txarrak josten duzu, ezta?

– Hori diote, bai.

– Buah, asko gustatzen zait.

– Milesker, eta, nongoa zara, hemen bertakoa?

– Bai, ni zuhaitza baino katalanagoa naiz (*soy más catalana que un árbol*)

– Hara, hori ez nuen sekula entzun!

– Ba hori, zuhaitzen moduan, hemen jaio eta bertakoa izango naizela beti, sustraiak hemen ditudala eta ez naizela mugituko.

– Kar, kar, ona!

– Ei, ba ni Negu Gorriak azken kontzertuetan izan nintzen, Donostian! Eta euskaraz badakizkit esaldi batzuk! Asko maite dut Euskal Herria!

– Bota!

– “Zenbat urte dituzu?”, “Ni Gemma naiz”... gehiago ere banekien, baina ahaztu! Eta zu, nongoa zara, Donostikoa ala Bilbokoa? –erdarara bueltatuz–

– Ez bat ez beste, Lekunberrikoa naiz.

– Ez dut ezagutzen, non dago hori?

– Iruñetik ez oso urruti, Nafarroan.

– Hara, orduan ez zara ezta euskalduna ere! (*¡Entonces ni siquiera eres vasco!*)

“Bertako zuhaitza izateko, a zer fruitu eskasa” pentsatuz alde egin nuen, erreta. ■

HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



izan dadin nahi lukete. Egiazkoa alegia, gezurraren gainean ez eraikia. Alderdi boteredunen praktiak finkatutakoak erakarri duenak das-tatu du poliziaren jazarraldia kalera egin duen lehen egunean. Eta beren harridurak adierazi dituzte biharamunean, egurra jaso ostean. Ez dute gauza berezirik eskatzen, galdetzen dutena politiko profesionalek beren esloganak adieraztean eskaintzen dituzten oinarritzko planen zutabeak dira. Bizibide duina, bizimodua eraikitzeko aukerak, gizartearen antolakuntzan parte-hartzea, gurasoen munduan beren leku propioa, lanaren truke autonomia, guraso-

Benetako

en bizkarretik lurreranzko jauzia egin ahal izatea. Egin duten *manifaren* irudiek hori erakusten zuten, esandakoez berdin. Demokrazia nahi dute, benetakoa. Hauteskunde formaletatik hara, emaitzak. Ez dituzte gainegiturak iraultzeko asmorik adierazi, ez dute lanaren errenta kapitalare-narekin parekatzeko nahirik erakutsi, ez dute ezer hauskorrik galdetu. Ikasi dute demokrazia eza dela kolpatzen dituen birusa. Ongi etorriak etxera. Irabaz-leen biktimak zarete, euskaldun kontzientziadunen eremuak, oinarritzko eskubideak ukatuak ditugunon lurraldekoak. Sortu egin duzue zuek ere zuen tresna, orain garatzen duzue lana. Ongi etorri. ■